



Arartekoaren 2015R-650-15 Ebazpena, 2015eko maiatzaren 20koa. Horren bidez, Laudioko Udalari gomendatzen zaio behar bezala erantzun diezaion 26 A Banatze Arloko D Burutze Unitatean aurreikusitako urbanizazio-lanak bultzatzeko eskaerei.

Aurrekariak

- (...) enpresak berriz ere hirigintzako kudeaketan atzerapena salatu du, Laudioko Hiria Antolatzeko Plan Orokorreko 26 A Banatze Arloko D Burutze Unitateari dagokionez.

Zehazki, kexa horren bidez, enpresak adierazi du Laudioko Udalari berriz ere eskatu diola –2014ko irailaren 3ko idatzian– arlo horretan kudeaketak egin ditzan eta Arartekoaren 2014ko abuztuaren 18ko ebazpenari erantzuna eman diezaion. Era berean, 2014ko urriaren 10ean, ordaindu gabe dauden urbanizazio-kuotak direla eta jabe jakin batzuek zor dituzten zenbatekoak ordaintze aldera, aurrekontu-partida bat baita birpartzelazio-proiektua burutzeko gastu-partida bat ere eratzeko eskatu dio.

Aipatutako Arartekoaren ebazpenean adierazi dugunez, Laudioko Udalak birpartzelazio-proiektutik ondorioztatutako baldintzak betetzeko burutu diren jardueren berri eman zigun arren, kitapen-kontuaren betebeharrak ekonomikoak betetzea bermatzeko aurreikusi zen prozedurarekin jarraitu behar zuen.

- Kexa honi dagokion izapidea emateko asmoz, Laudioko Udalera jo dugu berriz ere, Laudioko Hiria Antolatzeko Plan Orokorreko 26 A Banatze Arloko D Burutze Unitatearen hirigintza-kudeaketari buruzko informazioa, eta batez ere, kexagileek 2014ko irailean aurkeztutako eskaerei emandako erantzunari buruzko informazioa biltzeko.

2015eko urtarrilean jaso dugu Laudioko Udalaren txosten bat. Txostenean Alkateak adierazi du –kexagileek dagoeneko dakitenez– ez dagoela garrantzi handiko berririk D Burutze Unitateari dagokionez. Urbanizatzeko lanak jarraitzen dute geldirik, birpartzelazio-proiektuaren ondorioz jabeek dituzten betebeharrak betetze-maila nahikoa ez delako. Ondorioz, Alkateak errepikatzen du oraindik ere jarraitzen dutela aurretik bidalitako erantzunean azaldutako kausa eta arrazoiak, izan ere, “benetan ezinezkotzen diotela Udal honi proiektatutako hiri berritze ekimena gauzatzea, gure baliabide propioak oso eskasak diren eta badauden ekimen publikoko beste lehentasun batzuk”.

- Erantzun hori kexagileari helarazi ondoren, idatzi berri bat jaso dugu. Horren bidez, berriz aurkeztu du bere kexa eta Udalak esku hartzeko eskatzen du, oraindik bete ez diren hirigintza-betebeharrak betetzea lor dezan. Eragozpenei dagokienez, kexagilearen ustez, urbanizazio-lanak eta ondoko obra hidraulikoak funtzioaren aldetik independenteak dira. Aurrekontu-herstulari dagokionez, Udalak ekonomia-inguruabar berberetan burutu dituen beste jarduera batzuk





aipatzen ditu. Ildo horretan, lehentasunen inguruan dio udalerrian etxebizitzaren premia dagoela. Azken idatzi horretan errepikatzen da Laudioko Udalak ez dituela hartu bere esku dauden neurri guztiak aurreikuspen urbanistikoak aldatzeko, burutze unitate horretan obrak egiteko sistemari edo epeei dagokienez.

Edonola ere, Udalak ez die erantzun aurkeztutako eskaerei; bakarrik esan du kexa aurkeztu duen enpresak burutze-unitate horren kudeaketa-egoera ezagutzen duela.

Kexa hori ikusita eta horren planteamendua eta jasotako informazioa aztertu ondoren, bidezkoa iruditu zaigu honako gogoeta hauek helaraztea:

Gogoetak

- (...) enpresak –D Burutze Unitatean dauden lursail batzuen jabeak– kexa berri bat aurkeztu du Arartekoaren aurrean. Horren bidez salatu du Udalaren jarduerarik eza; izan ere, Udalak ez du ezer egin Laudioko Hiria Antolatze Plan Orokorreko 26 A Banatze Arloko D Burutze Unitatearen benetako garapena (atzerapen handiagorik gabe) bermatzeko.

Zehazki, kexagileak eskatu dio Udalarari unitatea epe batean kudeatzeko esku har dezan, eta hala badagokio, urbanizazio-lanak atzerapenik gabe hastea ahalbidetzen duten aurrekontu-aurreikuspenak egin ditzan, baina ez du Udalaren erantzunik jaso. Gainera, Udalak ez du informazio gehiagorik eman betebeharrak betearaztea lortzeko burutu diren jarduerari buruz. Edonola ere, udalaren txostenak jasotzen du urbanizazio-lanak geldirik daudela alderdiei aurretik azaldutako arrazoiengatik (baliabideen urritasuna eta beste lehentasun batzuk egotea).

- Lehenik, berriz ere esan nahi genuke Udalak ez duela bete aurkeztu diren idatzi guztiei erantzuna emateko eta eskaera dela-eta udalaren jardura interesdunari jakinarazteko betebeharra.

Izapide administratiboaren existentziaren bermea eta herritarrari erantzuteko bermea eta herritarrek administrazio egokia izateko eskubidearen zati dira; kasu honetan, gauzatu beharko lirake aurkeztutako idatziak jaso izanaren adierazpena, ofiziozko bultzada eta aurkeztutako gaiei beren-beregi eta arrazoizko epe batean erantzuteko betebeharra.

Abiapuntu gisa kontuan hartu beharra dago interesdunak alde aurretik jaso duela hirigintza-kudeaketarekin loturiko prozeduraren egoerari buruzko informazioa. Hala ere, kasu honetan, bere kexak geroko eskaera edo errekerimendu batekin zerikusia du; horren bidez, hain zuzen, gaia dela-eta, neurri berri batzuk hartzeko eskatu du. Proposamen horietako batzuk zehaztu ditu, udal aurrekontuan sar daitezzen.



Kasu honetan, denbora luzea igaro arren, ez da egon kexagileak aurkeztutako eskaerei buruzko erantzunik; eskaera horien bidez, eskatu du, hain zuzen, D Burutze Unitatearen hirigintza-kudeaketarekin jarraitzeko eta partida bat 2015ko udal aurrekontuan sartzeko.

- Kontuan hartu behar da eskaera hori ez dela nahi teoriko hutsa. Administrazio-botereen gauzatzea bultzatzeko helburua duen eskaera da, hirigintzaren antolamendua burutu dezan (lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 2. artikulua).

Kexan jasotako kontuak zerikusia du herri-administrazioen betebeharrak eta erantzukizunekin. Hirigintza eginkizun publikoa denez, betebeharrak eta erantzukizun horiek ezarri dira hiri-antolamendu eta egikaritzeari buruzko aurreikuspenak betetzen direla ikuskatzeko. Kasu honetan, araudian jasotako moduan, hirigintza-jarduera horrek ukitu dituen pertsonen ondare-eskubide eta interesak babesteari dagokionez.

Bestalde, hirigintzako araudiak epeak betetzeko betebeharrak eta erantzukizuna ezartzen du. 4.3 artikulua esplizitu egiten duen interes publikoaren mende egotearen printzipioa aplikatzeko kasu bat da. Printzipio horri esker bermatzen da "Herri-administrazio eskudunek hirigintza-planetan kalitateaz, kopuruez eta egikaritze-epeez ezarrita dauden aurreikuspenak betetzen direla ikuskatzeko duten eginbeharrak eta erantzukizuna."

Betebeharrak hori hirigintzari buruzko araudian jasotako moduan egikaritu behar da, aukeratu den jardueraren sistema publiko edo pribatua alde batera utzi gabe. Udalei dagokie hirigintza-antolamenduaren egikaritze-jardueraren zuzentzea, ikuskatzea eta kontrolatzea. Antolamendu hori egikaritzeko lehentasunak baldin badaude, hirigintzako plangintzan jasota egon behar dute -133 Legearen 2/2006- artikulua: hau da, "baldintza objektibo batzuk finkatuko dituzte, horien bitartez plana garatzeko lehentasunen oinarriko hurrenkera definitu ahal izateko". Azken batean, hirigintza arloko eginbeharrak betetzen ez badira, interes publikoa kontuan hartuta, nahitaezko desjabetzea gauza daiteke, helburua lortzea bermatzeko.

Ilido honetan, Administrazioak baditu legeko neurriak eta eskumenak urbanizazio-prozesuak gelditzea saihesteko.

Ilido horretan, aipatu behar dugu lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 8ko 2/2006 Legearen 30. artikulua herritarren parte-hartzearen printzipioa ezartzen duela, hain zuzen ere, hirigintzaren antolamendua egin, izapidetu eta onartzeari dagokionez. Printzipio horri esker, herritarrek badute eskubidea administrazio-bidean akzioak erabiltzeko, herri-administrazioei hirigintzako legeria eta plangintza bete dezaten eskatzeko.



Horregatik guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Arartekoak honako gomendio hau eman dio Laudioko Udalari:

GOMENDIOA

Idatziz erantzun diezaien interesdunek aurkeztutako eskaerei, 26 A Etxebizitzako Banatze Arloko D Burutze Unitatearen garapena dela-eta.

Gauzak horrela, Arartekoak Laudioko Udalari bere betebeharra gogorarazi nahi dio: Udalak bere esku dauden lege-baliabide guztiak erabili beharko lituzke, 26 A Etxebizitzako Banatze Arloko D Burutze Unitatean aurreikusitako urbanizazio-lanak behar bezala eta dagokion epean gauzatzea bultzatzeko. Horrela ere, bete egingo luke 2/2006 Legearen 4. artikulua zehazten duen interes publikoa kontuan hartzeko betebeharra.

Era berean, urbanizazio-aurreikuspenak gauzatzeko egon daitezkeen eragozpenak kentzeko epeak eta aurreikusitako jarduerak interesdunei (adibidez, kexagileari) jakinarazi beharko dizkie.

